

Bruselako Euskal Etxea

Euskal Herriari buruzko argazki lehiaketa

Marko orokorra

Saint Gilles (Brusela) udalerriko kultura zerbitzuaren eta Europako Batzordeko Eusko Jaurlaritzaren ordezkartzaren lankidetzarekin batera, Bruselako Euskal Etxeak, irabaziak lortzeko xederik gabeko elkarteak, Euskal Herriari buruzko argazki lehiaketa bat antolatu du.

Argazki lehiaketa hau Euskal Herriari buruzko aste kultural baten testuinguruan sartzen da. Bruselan ospatuko da 2018ko abenduaren 7tik 15era.

Bruselako Euskal Etxeak aukera hau aprobetxatu nahi du Euskal Herria eta bere berezitasunak ezagutzera emateko eta baita Euskal Etxeko ekintzen berri emateko ere.

Argazki lehiaketa Euskal Herriko zazpi probintzia historikoetan (Ipar eta Hego Euskal Herria) ateratako irudiei buruzkoa da.

2 gai proposatzen zaizkie parte-hartzaileei:

- Euskal Herriko paisaiak (mendia, ozeanoa, lautada, animaliak...).
- Euskal Herriko kultura (folklorea, jaiak, erretratuak, musika...)

Parte-hartzaile bakoitzak gai bakarrean izena emango du eta gai horrekin zerikusia duten 6 edo 10 irudiz osatutako argazki multzo koherentea aurkeztuko du.

Irabazleak Bruselako Euskal Etxeko kidez eta argazkilariz osatutako epaimahai batek aukeratuko ditu. Parte-hartzaile guztien artean **5 saritu** aukeratuko dira.

Saritu bakoitzak lortuko du:

- 6 irudiz osatutako argazki multzoaren erakusketa Saint-Gilleseko Pelgrims Etxean Euskal Herriari buruzko aste kulturalean, 2018ko abenduaren 7tik 15era.
- 6 irudi horiek errebelatzea eta muntaia 30-40 zentimetroko formatuan Hahnemuhle edo Ilford paperean Dibond euskarrian inprimatze eta muntaia lantegi profesional baten bitartez.
- Erakusketa-hasierako ongi etorrira gonbidapena eta bere lanaren aurkezpena erakusketaren orduan.
- Erakusketa eta gero argazkiak berriz hartzeko eskubidea.

Bost sarituen artean irabazle nagusi bat aukeratuko da eta bi pertsonentzako gaua irabaziko du Hondarribiako Parador Hotelean¹.

Izen-emateak 2018ko abuztuaren 15etik aurrera egin daitezke 2018ko irailaren 30eko gaueko hamabiak arte. Parte-hartzaile bakoitzak gai batean izena emango du bere irudiak bidaliz. Hautagaiek argazkiak zenbakizko-fitxategi formatuan WeTransfer doako programaren bitartez bidaliko dituzte helbide honetara: vdmphotographie@yahoo.fr
Sarituen jakinarazpena egingo da epaimahairen bitartez 2018ko urriaren 31n.
Sarituei posta elektronikoz jakinaraziko zaie.

Sarituen erakusketa-hasierako ongi etorria **abenduaren 7an izango da, ostirala, 18:30etatik 21:30etara** doako edari batekin. Argazkiak Bruselako Euskal Etxeko webgunean eta Facebooken argitaratuko dira.

Lehiaketan parte hartzen duen argazkilariak egile-eskubideari uko egiten dio argazki lehiaketa honen promozioaren testuinguruan eta Bruselako Euskal Etxearen jarduera orokorren publizitaterako.

1 Garraioa (hegazkina) ez da sartzen eta goi-denboralditik kanpo da.

Bruselako Euskal Etxea Argazki lehiaketa 2018

Lehiaketaren araudia

1. artikulua: Antolatzailea

Lehiaketa Bruselako Euskal Etxeak antolatzen du, irabaziak lortzeko xederik gabeko elkarte. Helbidea: Fernand Bernier Kalea, 10, 1060 Saint-Gilles.

Ondorengoan lankidetzarekin:

- Saint-Gilles udalerriko kultura zerbitzua.
- Europako Batzordeko Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria.

2. artikulua: Parte-hartzea

18 urtetik gorako pertsona fisiko eta moral guztiei zabaldua dago lehiaketa hau. 18 urtetik beherako parte-hartzaileek gurasoen/tutoreen/arduradun legalaren baieztapena izan behar dute parte hartzeko.

Kanpoan utziko dira:

- Epaimahaiko kideak.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 10 argazki aurkez ditzake.

Argazkiek ondorengo 2 gaietako batekin zerikusia izan behar dute:

- Euskal Herriko paisaia.
- Euskal Herriko kultura.

Irudi multzoa Word dokumentu batekin bidaliko da argazki bakoitzaren deskribapena (lekua, gertaera, testuingurua) eta parte-hartzailearen informazioarekin (izena, abizena, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa).

Argazkiak eta aurkezpena **2018ko irailaren 30eko gauerdian beranduenez** bidalita egongo dira posta elektronikoko honetara: vdmphotographie@yahoo.fr WeTransfer doako programaren bitartez.

Erabilgaitako formatua: Tif (egokiena) edo Jpeg formatua gehienezko erresoluzioarekin.

Parte-hartzaileak berak egindako argazkiak bakarrik aurkez ditzake. Argazkietan ezagut daitezkeen pertsonen beren baimena eman behar dute. Beharrezkoa izanez gero, lehiaketako parte-hartzaileari idatzizko baimena eskatu ahal izango zaio.

Antolatzailea ez da argazkian azaltzen den pertsonaren edo azaltzen diren pertsonen baimenik jaso ez duen argazkiaren argitalpenaren arduradun izango.

Arau hauen inguruan parte-hartzaileari froga bat eskatu ahal izango zaio.

Argazki arrazistak, iraingarriak edo indarrean dauden arauak errespetatzen ez dituztenak lehiaketatik baztertuak izango dira automatikoki eta helegiterik gabe.

Bruselako Euskal Etxea euskal kulturaren ezagutza sustatu nahi duen irabaziak lortzeko xederik gabeko elkarte apolitikoa da eta baita ere beste kulturarekiko errespetuan eta tolerantzian.

Lehiaketan zehar antolatzaileak eskubidea du baldintza hauek guztiak betetzen diren egiaztatzeko beharrezkoa den informazio guztia lortzeko. Eta baita ere baldintza hauek betetzen diren ala ez jakiteko beharrezkoa den informazioa lortzea ezinezkoa den kasuan, izen-ematea baliogabetu edo lehiaketatik kanpo uzteko.

Antolatzaileak ez du erantzukizunik hartzen bidalitako argazkia ikusteko arazo teknikoak edo bestelako arazoak badaude.

3. artikulua: Lehiaketako araudiaren onarpena

Lehiaketan parte-hartzeak araudi honen onarpena dakar, eta baita ere antolatzaileak izen-emateari, parte-hartzeari eta lehiaketaren garapenari buruz hartzen dituen erabakiena ere.

Antolatzaileak eskubidea du edozein momentutan arautegi hau zuzentzeko. Araudia eta aldaketa guztiak Facebook orrian eta Bruselako Euskal Etxeko webgunean argitaratuko dira. Araudiari egindako aldaketa guztiek eta antolatzaileak hartutako erabakiek berehalako efektua izango dute eta ez da helegiterik onartuko.

Lehiaketan parte-hartzeak aurkeztutako argazkien erreprodukzio eta hedapen eskubide ematea dakar, lehiaketaren antolakuntzaren testuinguruan, honen promozioan, ondorengo lehiaketan promozioan eta elkarteko aktibitateen promozioan. Hedatuko den argazki orok parte-hartzailearen izena idatzita izango du.

Arautegi hau ez errespetatzeak parte-hartzailearen baztertze automatikoa eta berehalakoa dakar, sortutako kalteak konpontzeko dituen baliabide guztiak erabiliz, antolatzailearen irudiari eta taldeari eragindako kalteak barne.

4. artikulua: Lehiaketaren iraupena

Lehiaketarako izen-ematea **2018ko abuztuaren 15ean** hasi eta **2018ko irailaren 30ean amaituko da, gauerdian** (Bruselako ordua).

Sarituen jakinarazpena **2018ko urriaren 31n** egingo da posta elektronikoz.

Antolatzaileak lehiaketa eteteko edo bertan behera uzteko eskubidea du betiere, edonori edozein motatako konpentsaziorik emateko ardura gabe.

Lehiaketa bertan behera utziz gero, antolatzaileak argazkiak ez ditu erabiliko bere jarduerak promozionatzeko, ezta sare sozialetan ere.

5. artikulua: Saria

Parte-hartzaileen artean **5 saritu** aukeratuko dira.

Saritu bakoitzak lortuko du:

- Euskal Herriari buruzko aste kulturean, Pelgrims Etxean bere 6 irudi aurkezteko eskubidea.
- 6 irudi horiek inprimatzea 30-40 zentimetroko formatuan Hahnemuhle edo Ilford paperean Dibond euskarrian inprimatze eta muntaia lantegi profesional baten bitartez.
- Erakusketa-hasierako ongi etorrira gonbidapena eta bere lanaren aurkezpena erakusketaren orduan.
- Erakusketa eta gero argazkiak berriz hartzeko eskubidea.

Irabazle nagusi bat aukeratuko da eta bi pertsonentzako gaua irabaziko du Hondarribiako Parador Hotelean².

Sariak ezin dira ordezkatu inolaz ere eta ezin zaizkie bitartekoei eman.

6. artikulua: Lehiaketaren-mekanismoa/irabazlea

Lehiaketako epaimahaia Bruselako Euskal Etxeko bi barne-kidez eta Euskal Etxetik kanpoko bi argazkilariz osatuta dago.

Epaimahaiko lehendakaria Bruselako Euskal Etxeko administrazio batzordeko kide da.

Epaimahaiko kideek ezin dute lehiaketan parte hartu.

Argazkiak era anonimoan aztertuko dira, epaimahaiko kideek ez dute parte-hartzaileen nortasunaren berri izango.

Sarituek onartzen dute beren izena eta argazkiak antolatzailearen webguneetan argitaratzea, sare sozialak barne. Antolatzaileak ez du irabazlearen datuak argitaratzean sortutako ondorioen erantzukizunik.

Sarituak derrigorrez egongo dira erakusketa-hasierako ongi etorrian Pelgrims Etxean, **ostiralean, abenduaren 7an 18:30etatik 21:30etara.**

7. artikulua: Orokortasunak

Antolatzailea ez da inongo kasutan pertsoneri (lehiaketako parte-hartzaileak edo ez) eragindako zuzen edo zeharkako kalteen arduradun izango. Lehiaketan zehar sor daitezkeen eragozpen tekniko eta/edo material informatikoaren arazoan aurrean ere ez. Antolatzailea ez da arduradun izango lehiaketan parte-hartzea une batez edo behin betikoz ezinezkoa bihurtzen bada.

2 Garraioa (hegazkina) ez da sartzen eta goi-denboralditik kanpo da.

Lehiaketan parte-hartzeagatik bakarrik, parte-hartzaileak arautegi honetako xedapenak onartzen ditu, baita antolatzaileak momenturen batean lehiaketaren inguruan har ditzakeen erabakiak ere.

Xedapen bat baliogabetzen bada, horrek ez du esanahi beste xedapenen balioa gutxituko denik.

Lehiaketa honen inguruko erreklamazio oro gutun zertifikatu bidez bidali behar da, lehiaketaren data argitaratu eta ondorengo hamar lan egunetan beranduenez, ondorengo helbidera: Bruselako Euskal Etxea, Fernand Bernier Kalea 10, Saint-Gilles.

8. artikulua: Datu pertsonalak

Lehiaketa honetan parte-hartzean, Bruselako Euskal Etxeak zure datuak era pribatuan erabiliko dituela onartzen duzu, honen funtzionamendu onaren arduradun delarik.

1992ko abenduaren 8ko bizitza pribatuaren babesari buruzko legearen arabera, antolatzaileak informatzen die parte-hartzaileei eta jarraitzaileei datu pertsonalak lehiaketaren testuinguruan bakarrik erabiliko direla. Parte-hartzaileek eskubidea dute zuzenean eragiten dieten datu pertsonalak, direnak direla, kontsultatzeko eta zuzentzeko.

9. artikulua: Egile eskubideak / Irudi eskubideak

Aurrerago deskribatu den bezala, parte-hartzaileak berak eginiko argazkiak bakarrik aurkez ditzake. Argazkian ezagut daitezkeen pertsonak beren baimena eman behar dute (idatzizko baimena eskatu ahal izango da beharrezkoa bada). Antolatzailea ez da argazkian azaltzen den pertsonaren edo azaltzen diren pertsonen baimenik jaso ez duen argazkiaren argitalpenaren arduradun izango. Arau hauen inguruan parte-hartzaileari froga bat eskatu ahal izango zaio.

Lehiaketan parte-hartzeak aurkeztutako argazkien erreproduzio eta hedapen eskubide ematea dakar, lehiaketaren antolakuntzaren testuinguruan, honen promozioan, ondorengo lehiaketan promozioan eta elkarteko aktibitateen promozioan. Hedatuko den argazki orok parte-hartzailearen izena idatzita izango du. Informazio hau Word dokumentu batean zehaztuko da argazkiak bidaltzen diren unean posta elektronikoko honetan: vdmphotographie@yahoo.fr WeTransfer bidez.

10. artikulua: Auzia

Lehiaketa hau Belgikako legediaren bitartez araututa dago. Auzirik jartzekotan, auzitegi belgikarrak dira eskudunak.

2018ko apirilaren 15ean idatzitako araudia.